

**IRITZIA**

Itziar Ajuria

**'nryroncrril**

Foterotarrak  
Bost belaunaldi  
okingintzan

**IhALETXETIK**

Miguel Angel  
Blancoren  
hilketaren  
aurkako  
konzentrazioa

**GE** 931  Tyrot

**KiliBARREN:**  
Santa Ana jaiak

**KIROLA**

Mintxetako  
Futboi 7  
txapelketa

**KULTURA**

Nazioarteko XI.  
Folklore Jaialdia

# BARRREN

1997ko uztailaren 18a  
V. urtea - 203. zkia.

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



**Miguel Angel <sup>4</sup>Bla r Rheri za**

**ISILASUNA eta TXALUAK  
hilketa salatzeke**

"Pertsona guztiek dute bizitzarako, askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea"  
Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala



# MENDAROKO UDALAK



Vg'

M E N D A R O \$1<sup>1</sup>

1983



**Santa Ana**

**jai zoriontsuak**

**opa dizkizue**

**herritar guztioi**



ITZIAR AJURIA

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nald duena aukeratzen du.

## Oporrak eta jaiak

**H**asteko, Aste Santuko oporrak. Haur eta gazteentzat ez ezik, adin hain gazte ez garenontzat ere pozgarriak izaten dira. Aste Santuan Curroren bila Caribe aldera joan ginen. Ez genuen berarekin topo egin, baina bai lasai eta patxadan egoteko toki eder eta zoragarriak ikusi. Hango eguraldi paregabea, biztanle atseginak, hondartza liluragarriak... paradisuak, nonbait egotekotan, han behar du egon.

Elgoibarrera bueltan, udako oporren zain gaude denok. Udarekin batera eguraldi ona, ibilalditxoak hara eta hona, toki berriak ezagutu,... egunerokotasunetik irteteko aitzakia ezin hobea azken finean.

Kosta zaio, hala ere, udako eguraldiari heltzea! Heltzea esan dut, baina esateko hutsa dela argi dago leihotik kanpora burua atera eta gure zerualdeari begiradaxo bat botatzen badiogu. Tira, pazientzia apur bat eduki beharko dugu gure herrialdean gogoko ditugun "eguraldi natural" horiez gozatzeko. Baina, dena dela, hemen dugu zorioneko uda. Hondartza, mendi eta txangoak. Eta uda bukatzeko, gure Bartoloren omenez egiten diren jaiak. Elgoibar-

tarrok biziki atsegin ditugun egunak dira, barru-barrutik bizi ditugunak.

Baina jaiari buruz ari naizela, hauekin lotutako gertakizun bat kontatzera noakizue. Orain hilabete batzuk, iazko Gabonetan zehatz esateko, gure herriaren 650. urteurrena ospatu zen. Gogoan dut 600. urteurrena izan zenean. Ohitura denez, jaietan izaten dira suzko-erroberak eta txapliguak. Urte hartan, San Bartolome

egunean, mendea betetzen zela eta, suzko-errobera bereziak izan ziren. Arriolaneko teilatua gainean jarri zituzten, eta parean, zeharka, frontoi gainean suzko hegazkin batzuk. Atera eta gero, plaza gainean gurutzatu behar ziren; bai-

na gurutzatu beharrean elkar topo egin zuten. Hura izan zen iskanbila! Plaza guztia jendez beteta zegoela, denak kafean patxadan eserita, dotore-dotore. Lurra jo zuten "hegazkinek", han erre ziren hainbat erropa berri, eta bat edo bestek eskumuturrak ere apurtu zituzten! Gu gazteak ginenez nahikoa barre egin genuen. Zerutik barka diezadatela eskumuturra edo zerbait apurtu zutenek barre egi-teagatik.

**"Iaz gure herriaren 650. urteurrena ospatu zen. Gogoan dut 600. urteurrena izan zenean"**





Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR

\*T 74 41 12

Publitatea:  
ir 74 37 04

Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA	Ainhoa Lodoso
ERREDAKZIO KONTSEILUA	Andres Alberdi, Rosa Agirregabiria, Mikel Kortabitarte
KAZETARIAK	Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
PUBUZITATEA	Miren Moreno
MAKETATZAILEA	Mikel Cornejo
ADMINISTRAZIOA	Amaia Martin M. Angeles Ortuoste, Ftata Alvarez
KOLABORATZAILEAK	Irati Agirreazaldegia, Gemma Agirregomezkorta, I tziar Ajuria, Ion Arrieta, Agurtzane Arriola, Edurne Bilbao, M. Angeles Exposito, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Ane Guild, Jon Gurrutxaga, Antton Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi Ledn, Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza, Ongarri Zine Kluba, Pello Rubio, Julian Segundo, Ixidar Solupe, Leire Urkidi, Iban Urizar Unai Villena eta Julen Zabaleta
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larrañaga
ENPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS.1.038/92
ISSN	1133-021X

Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlaritzako Kultura  
Sailak eta Foru  
Aldundiak diruz  
lagundutako  
aldizkaria.



**iffiDANOBAT**  
MAQUINAS HERRIAMENTA

## Beitia

**J**oan den egunean, mendiz inguratuturik, Euskal Herriak duen paisaia zoragarriaz disfrutatzen ari nintzela, nire inguruko berdea beltz bihurtu zela konturatu nintzen. Harriturik, zerura begiratu nuen, eta lehen oskarbi zegoena, Iainoz bete zen. Azkenik, itsasoan aurkitu nahi izan nuen kolore arrastoren bat, baina alperrik; itsasoak kolore grisa zuen. Zer gertatzen ari zaio nire Euskal Herri maiteari? Gaixotasunen bat omen du, eta "terminala" ote den beldur naiz. Urrun bizi diren ikerleek kolore aldaketa eragiten duten birusa desagertuko dela diote, baina ez dute lortzen jatorrizko koloreak berreskuratzea. Bertako artzaiek, betidanik Euskal Herrian bizi izan direnek, sendabide bat bada goela diote, eta ikerleei, beren botikak erabil ditzatela proposatzen diete, baina hauek ez diete jaramonik egiten. Bitartean, euskal herritarrok, sufritzen, gure Herri maitearen gaixotasuna sendatu ezinik, erantzunik gabe, baina galderak sobran ditugularik. Egunero, jaikitzean, irrifartsu egoteko arrazoi bakar baten bila ibiltzen gara, baina nahigabe malkoren batek ihes egiten digu Euskal Herria hiltzen ari delako. Eguzki errainu bat eta euria: Ortzadarra; badakigu hor zaudela, baina zure koloreak ezin ditugu ikusi. Euskal Herria! Egunen batean dena ahaztuko dugu (ahaztea, hori da gakoa), eta bizitza berri bat hasiko dugu. Egunen batean, abesti bat egingo dizut.

**Alberto Iriondo GonzMez**

## Soka ez da eten

Astelehena, hilak 14. Eguediko 12etarako ordubeteko geldia eta kontzentrazioa daude konbokatuta. Zer egingo dut? Sentimendu nahasiak datozkit burura: batetik, mina eman dit Miguel Blancoren heriotzak eta nire haserrea eta nahigabea azaldu nahi nituzke. Bestetik, ez nator bat Gobernuak eta Ajuria Eneako Mahaiak kasu honetan izan duten jarrerarekin. Be-

raz, hilketa salatzeke ordubete lanik ez egitea erabaki dut, baina ez naiz Plazara azalduko. Geldiunea gutun hau idazteko aprobetxatuko dut.

Azal ditzadan nire sentimenduak. Mina eta tristura eman dit Miguel hilda azaltzeak. ETak ez zuela hilko sinestuta nengo. 29 urteko gazte honek ez du herri honi ezer txarrik egiteko astirik eta aukerarik izan. PPko zinegotzia zelako hil dute, eta hori ezin da inor hiltzeko motiboa izan. Hilketa honek ez du inolako justifikaziorik. Euskal presoak Euskal Herrira hurre-ratu behar dira, dudarik gabe, baina ez Migueli bi tiro emanda. ETak kale egin du, eta bueltarik gabeko hutsegite larri baten aurrean gaude. Zoritxarrez, hilketa hau Mayor Oreja eta konpainia euren posturan mantentzeko aitzakia ederra izango da.

Hilketa argi eta garbi gaitzetsi ostean, politikoen jarrera ere salatu nahi dut. Pertsonaren bizitza hain inportantea bada, eta hala da, egin al dute euren eskuetan zegoen guztia Miguelen bizitza salbatzeko? Bitartekaritzaz ari naiz, Miguelen bizitza salbatzeko NEGOZIAZIOEZ. Ehundaka mila henitar aspaldi ez bezala irten ziren kalera ETari Miguel ez hiltzeko eskatuz. Baina politikoez? Zer egin dute politikoez ermuarraren bizitzaren alde? Zerbait egin bada jakitea nahi dut, egin dezatela publiko.

Baina nire errezeloa hau da: ez ETarentzat eta ez Gobernuarentzat Miguelen bizitza ez zela garrantzitsuena. Sokatira gogorrean ari dira biak aspaldiko urteetan eta inork ez du soka soltatzetik nahi. Miguelen arre-bak, anaiaren bizitzaren alde ahal zuten guztia egiteko erregutu zien Bilbon ETari eta Gobernuari. Betirako zorretan geratu dira biak. Ordaindu ezingo duten zorretan.

Bizitzak aurrera darrai, eta Herriak, orain arte bezala, hildakoen oroimenez negar egiten segituko du. Noiz arte?

**LL.**



## Presoen erabilpena

- **¡TAK** eta HBk presoak — erabili egiten dituzte. ETak eta HBk ezer ez konpontzeaz gain, Euskal Herriari arazoak sortu nahi dizkiote aurrerabidea ixteko. ETak eta HBk presoak behar dituzte ETaren existentzia justifikatzeko.

Presoak ETaren dinamikaren ondorioa dira. Beraien presoak dira. Beraz, presoak kaleratzea euren eskuetan dago. **ARMAK UTZ DITZATELA** eta **PRESOAK KALERATUKO DIRA**. Hau da presoen interesatzen zaidan debate **BAKARRA**.

**Juan Jose Bastarrika**

## Dagokionari:

**U**ztailaren 8an eguraldi aparta zegoela ikusita gure haurrak hondartzara eramatea erabaki genuen. Hortaz, Elgoibarko apeaderora abiatu ginen 14:45eko tren hartzeko asmoz. Andenera joan aurretik txartela saldu eta pikatu ere egin ziguten. Txartela pikatu zigun langileak telefono mugikona zeukan, beraz, jakin behar zuen tren beteta zetonela. Baina halere, biletea sal-

du zigun.

Jendea "sardinak latan" bezala zetorren. Gure umeak hondartzara joateko irrikaz zeuden arren, sobrekargatuta zegoen beste tren baten zain egon behar izan genuen ordubete luzez. Azkenean, esfortzu handi baten ostean trenera igotzea lortu genuen. Zeinek esan umeei ez ginela hondartzara joango? Esperientzia itogarria izan zen. Aberia edo istripuren bat izanez gero zer gertatuko litzatekeen behin eta berriz etortzen zitzaigun burura.

Egoera honen aurrean, Eusko-Trenen jokabidea salatu nahi dugu, 2000 urtearen atarian, bidaiariak ganadua bailitz garraitzen baitituzte.

Bidaiaren segurtasuna eta erosotasunari baino, errentabilitateari lehentasuna ematen dion enpresa publiko bat salatzen dugu. Denok dakigu eguraldi onarekin kostaldera jende gehiago joaten dela. Badakigu egoera hau beste pertsona askok jasan izan duela beste urte batzuetan.

Beraz, horrelako egoerak aurrikusterik badagoela jakinda, ganorazko zerbitzu publikoa eskaintzeko gaitasunik ez duen Eusko-Tren enpresa salatzen dugu.

**M. J. Miranda, Lourdes Lopez, Isabel Bermejo eta A. Astiazaran**

### Oharra:

Oporrak iritsi dira **BARRE**nera. Dakizuenez, San Bartolome jaien atarian zenbaki berezia kaleratuko dugu. Oporren ostean irailaren 12an itzuliko gara. Ordura arte ondo pasatu eta ikusi arte!

## BAI, ESAN?



**Juan Carlos Abian**

**Elgoibarko PPko Udal zinegotzia**

Ez dago esan beharrik azken egunotako notizia zein izan den. Ermuako PPko zinegotzi bat bahitu eta hil du ETak. Guk **Elgoibarko Udaleko PPko zinegotzia den Juan Carlos Abiani** deitu diogu egun hauek nola bizi izan dituen galdetu eta gaiari buruz berba egiteko.

- **Nola bizi izan dituzu bahiketa eta hilketaren arteko egunak? ETak ultimatum-a beteko zuela uste zenuen?** Nire burutik pasatu zena zera zen: nola gerta daitekeen horrelako zerbait gizarte demokratiko batean. Bilboko manifestazioa ikusita itxaropen izpi bat neukan. Sentsibilitate minimo bat izango zutela uste nuen; euskal gizartearen erantzunari kasu egingo ziotela. Baina ez. Aspalditik esaten ari garen bezala, ez ETA ez HB ezin da inongo forotan eseri edozeri buruz berba egiteko. Min handiarekin nago; partiduko garraio batzordeko lankidea bainuen Migel Angel Blanco.


- **Pasatu al duzu sekula beldurrik?** - Inoiz bai. Beldurra baino gehiago harridura. Ezuste handia izan zen herrian nire aurkako pintadak agertu zirenean. Zer egin dut nik hori merezi izateko? HBkoek esan zidaten PPko zinegotziak, eta ni konkretuan, ez ginela ordura arte bezala Euskal Herriko kaleetan hain lasai ibiliko.

- **Zer iruditzen zaizu herritarren erreakzioa?** - Gertakizun honek "orain artekoa eta hemendik aurrerakoa" markatu ditu. Ez nuen espero herriak horrela erantzun- go zuenik. Nire izenean eta PPrez izenean bihotzez eskertu nahi dut herri honek adierazitako elkartasuna. Hala ere, gauza askok harritu nau, adibidez, igandean, Josu Ortuondok auto batetik Gesto Por La Paz elkarte-ko manifestariei HBko egoitza ez suntsitzeko eskatu zienean. Gizarte amorratuta dago, eta gorrotoa sentitzen du.

**Legeak euskal presoak EHko gartzetetan egon behar direla dio.** Une honetan gai hau alde batera uztea komeni da eta etorkizunean zer gertatzen den ikusi. Gure jarrera hau da: preso bakoitzaren kasua indibidualki aztertu. Eta "indibualki" azpimarratu egin nahi dut.



*1997ko uztailaren 9an 91 urterekin hil zen  
MARTIN SAN MARTIN ZUBIZARRETAren sendiak,  
bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



# Foterotarrak: Bosi belaunaldi ogia

*Gaueko 1 letan hasita ia egun osoko lana izaten zen. Lehenengo, sua piztu behar zen labea berotzeko. Ondoren, aurrez etxean bertan zegoen errotan ehotako irinaz oreka edo masa egin, moztu eta forma eman. Hau guztia eskuz. Labetik ateratako ogi goxo egin berriaren usainaz esnatzen ziren goizero foterotarrak. Gaur egun eza-gutzen dugun etxe herean bost belaunaldi luzez tente iraun du Foteroko okindegiak, baina aurretik datorkie azkuetarrei ogia egitearen tradizioa. Altxolako urrezko urteetan Foteroneko ogia jaten zen, emakumeek astoz egunero bertara eramaten zutena. Gauzak asko aldatu dira. Gaur egun ogia ez da eskuz egiten, makinak dau-de lana arintzeko. Irina ere etxean bertan egiteari aspaldi utzi zitzaion. Eta asto zaharren tokian furgoneta berri eta handiak daude. Baina, orain dela ehun urte eta gaur egun, ikutu berezia mantentzen du foterotarren ogiak, urteetan zehar iraun duenak eta herriaz herri zabaldu dena.*



*Estanis Azkue okindegiko labe zahartrean.*

**G**aur egun San Frantzisko izenez ezagutzen badugu ere, hamera batean Errebal kalea zen. Errebal kalean kokatzen zen Gabilokua etxea, Antonio Muguruzak here-dentziaz jaso zuena. 1847. urtean Muguruza jaunak Antonio Azkue Esnaola okivari saldu zion etxet "trezko txan-

ponetan ordaindutako 20.000 pta.ren truke. Antonio, isidora Bernedorekin zegoen ezkondata eta bost seme-alaba zituzten: Gregorio, Maria Tomasa, Francisco. Maria Juez eta Maria Celestina. Halere, Antonio Azkuek "Foteroko Etxe Zaharra" izeneko etxean egiten zuen ogia aitarengandik ikasita.

Urteek aurrera egin zuten eta Antonioren bi seme aitarekin ikasitako ogibidearekin jarraitu zuten, okindegiarekin hain zuzen. Franciscok Gabilokua izeneko etxean ekin zion okingintzari eta Gregoriok here aldetik Mutriku ireki zuen okindegia. Gaur egun oraindik ere Mutriku foterotarrekin jarraitzen dute.

**Fote opilak**


Lehen bi belaunaldiek sortutako hariari heldu zioten hirugarren belaunaldiko gizonek ere. Estanis, Gregorio eta Bitoriano Azkuek gustuko zuten aita eta aitonak hasitakoa eta eurak ere irin artean pasatzen zituzten egunak. Umetan etxean ikusitakoa ikasi eta ofizio bihurtu zuten.

Garai hartan errota zeukaten etxean eta Elgoibarko baserrietatik ekarritako garia bertan xehetzen zuten. Irin



*Baserrietatik ekarritako egurra erabiltzen zuten laberako.*





- Hitoriano Azkuek okindegia argazkilaritza landu zuten.  
--dkr-OF



MOIB7AR talle de San FranCiaCa  
EcCebn Ca,imlro [1.ro

hura erabiltzen zuten ogiaren oreka egiteko eta, nola ez, eskuz lantzen zituzten ogi guztiak banan-banan. Gero, inguruetatik idiek bultzatutako gurdietan ekarritako egurra etxean zuten zerrarekin moztu eta labera botatzen zuten,

**"Etxeko errotan egiten zuten irina. Laherako egurra haserrietatik ekarri eta zerra hateg mozten zuten".**

sua piztu eta beharrezko tenperatura lortzean, ogi-orea sartzeko. Egun osoan zehar izaten zen ogi egin berriaren usaina foterotarrenean. Ez pentsa, gainera, ogi mota bakarra egiten zenik. Garai hartako ogiek ez zioten batere inbidiarik gaur egungoei. Izan ere, Foteroto izena Fote deitutako ogi mota bati dagokio; etxekoandreak goizean

goiz gosaltzeko erosten zuten ogia zen. Bestalde, pertsona nagusientzat ere ogi berezia zegoen. Urte haietan adinean aurrera egiten zutenek haginak galdutakoan ez zuten, orain bezala, aukerarik izaten postizoak jartzeko. Haien hortz ahulentzat "Pasillora" izeneko opil bigunak saltzen zituzten. Vienako ogia ere bazegoen, baita frantsesa ere, azken honek oso zapora suabea zuelarik. Tradizioz datorkie, beraz, foterotarrei, era guztietako ogiak egitearena.

Gaueko 1 letan hasten zen eguna foterotarrentzat. Sua piztu behar zen, oreka egin, moztu, pisatu eta forma eman, labean sartu... Gau osoa lanean pasa eta gero 8:30ak aldera gosaltzen zuten eta ondoren berriz ere ekiten zioten ogia egiteari, lahea garbitu, ogia banatu, irina egin, egurra moztu eta, nola ez, kontuak egiteari.

### Bainuetxean ere Foteroko ogia

Hirugarren belaunaldian Estanis, Gregorio eta Bitorianorekin batera izan ziren Salome, Angelita eta Vicenta Azkue arreba ere. Hiru emakumeak ogia hartu eta astoen gainean jarrita etxeko etxe banatzen ibiltzen ziren. Altxolako Bainuetxean ere uzten zuten ogia. Vicenta orain gutxi hiI da eta bihar, uztailak 19, 100 urte beteko zituena. Esan digutenez, sarri kontaktatzen zituen Vicentak okindegiko kontuak. Behin baino gehiagotan, Alizotatik bueltan

Vicenta Azkue zenak bihar, hilak 19, 100 urte beteko zituena.



1847. urtean ireki zuten Foteroto okindegia San Frantzisko kalean.

zetoze, neguko izo-tzekin hozten ari zirene txori-txoak ikusten zituzten. Haien hartu, ogia garraiatzen zuten otarraren berotan sartu eta etxera eramaten zituzten. Okindegiko errota eta labearen berotan hainbat eta hainbat txori bizi izan ziren foterotarrekin.

Estanis eta Bitorianoren ondorengoek okindegiarekin jarraitu zuten bide desberdinetik. Bitoriano okindegian ez ezik argakijaritzan ere aritu zen eta honen alabak, Feli Azkue, Ondarroan ireki zuen okindegia, oraindik ere mantentzen dena. Bitorianoren semea zen Julian Azkue, aita bezala okindegian eta argazkilaritzan egin zuen Ian'eta gaur egun bere seme-alaba Julian eta Isa Azkue jarraitzen dute argazkilaritzaren negozioarekin.

Estanisen ondoren bere seme Angelek hartu zuen okindegiaren arduraren eta gaur egun Angelen alaba den Mari Kruz Azkue jarraitzen du negozioarekin Elgoibarren. Markinan, berriz, Luis Azkue dihardu okindegiarekin eta honekin batera aritzen dira Garbiñe Markinan bertan eta Inma Ondarroan.

Foterotarrek bizi izan dute gorabeherarik baina badirudi seigarren belaunaldi bat ere ezagutuko dutela, Mari Kruzen semea orain gutxi hasi baita okindegian lanean. Urte askotarako izan dadila!

# Zein gogoeta egin duzu egun hauetako gertakizunen ostean?



**JOSEFINA ALVAREZ**  
50 urte, etxeandrea

Nahikoa dela! Mundu osoak esan du gauzek ezin dutela horrela jarraitu eta nahikoa dela. Oso gogorra izan da. Heriotza beti da triste, edozein aldetakoa izanda.



**TERESA MINGUEZ**  
30 urte, dendaria

Hanka sartu ein dabela, ezin leike pertsona bat hil. Horrela ez dogu ezer lortuko, inork ere ez. Danok ipini bihar dou gure partetik ahal duguna hau konpontzeko.




**ELISABETH HORCAS**  
20 urte, ikaslea

Herriaren erreakzioak zerhaiterako balio izan du, beldurra gañditu eta kalera irten da jendea. Lehen askok horrela pentsatzen zuen baina ez ziren adieraztera ausartzen.



**UNAI JUARISTI**  
18 urte, ikaslea

Argi geratu da jendia kontra dauala. Ez naban espero hainbeste jende urtengo zala kalera. Gauzek onera ingo daben esperantzia dakat eta hori danon esku dao.




**JOSE MARTINEZ**  
58 urte, mandrinadorea

Ez dago eskubiderik egiten ari direna egiteko, ez alde batetik eta ez bestetik. Inolako errurik ez zuen mutil gazte bat zen. Politikoak akordio batera iritsi behar dira hau behingoz buka dadin.



**IÑAKI ALGUACIL**  
39 urte, berogailuetan teknikoa

Bada ordua egoera hau bukatzeko. Guztiok dugu bizi dugun egoera honen errua, bai alde batekook bai beste kook eta denok egin behar dugu lan bakea lortzeko.



**CORBEK5 COMBI FC-1850 hozkai u**

- Neurriak: 185 x 59,5 x 60 cm.
- 3261-tako bolumena
- 2 motore
- 2 termostato

77.900 pta.

Ubitarte plaza, 3  
Tel: 74 14 87

01.11SO

TRBERNR

Olaso industrialdea, 15  
Tel: 74 31 85

-EGUNEKO MENUF1K-  
-LORUNBIITETON-  
Flabak • Olagarroa • Fritoak  
-611UEZ-  
hienu ekonomikoak eta  
plater konhinatuak

- Meriendak, haurrentzako meriendak, afariak, luntxak, banketeak...
- Enkarguak egiteko aurrez deitu

**ESKR EZRZU RURREKONTUII  
INOLIIKO KONPROMEZURIK 6RRE!**

**Ordutegia:** flstelehenetik ostiralera 7:00-22:30  
Larunbatetan 9:130tik aurrera



# 1811 y 1



## nEGIRA

/1,,104,  
fr"


**GARAY harategikoa**

- Haragirik goxoena? - Falda erreta.
- Gustatzen ez zaizunik? - Solomilloa.
- Zein egoeraren aurrean jartzen dituzu muturrak? - Gezuraren aurrean.
- Zerekin egingo zenituzke hanburgesak? Kalumniarekin.
- Bizitza piperra balitz, zerez heteko zenuke? Adiskidetasunaz.
- Zein ordutan abesten du zuenean oilarrak? - 7:30etan.
- Gehien gustatzen zaizun barrukia? Gibela.
- Noren burmuina izan nahi zenuke? - Edison-ena.
- Etorkizunaren okela xamurra ala gogorra aurrikusten duzu? - Xamurra baina nerbioekin.
- Zer esango zenioke barazkijale bati? - Denetik jan behar dela.
- Jatea plazerra omen da.
- Neretzat bizitzeko beharrezkoa, besterik gabe.
- Zapore bat? - Marrubiarena.
- Usain bat? - Larrosarena.
- Ikuskizun bat? - Motordun kirolak.
- Udan gutxien gustatzen zaizuna? - Bero handia egitea.
- Besteengan baloratzen duzun bertutea? Zintzotasuna.
- Sekula izan al duzu tentaziorik ihes egiteko?
- Bai, mendi puntara joan eta denaz ahazteko.

## Bizi zaitez naturaz inguraturik

# MENDARO

### ENPARANTZA TXIKI berrian



## 30 ETXEBIZITZA

- Garaje eta trastelekua prezioaren barne
- Prezio itxiak zerga guztiak barne, BEZa izan ezik
- 2 eta 3 logelatako etxebizitzak

3 logela - 83,9 tn2

**1 3.500.000 PTA.**

**Informazioa eta gestioa:**

**INDURAIN & ASOCIA DOS S.**

Donostia - Iruñea

1e1: 21 95 36 - (948) 15 23 62

Informazio: Bulego mugikorrn obren ondoon Tel: 939 64 79 45 nsteleketetik ostitalern, 1 Oetatik 2etura eta 4etatik Betara

• **Bi elgoibartar gose greban**

"Artzai Onaren Katedraleko Ekimena" delakoaren barruan, Deba eskualdeko Amnistiaren Aldeko Batzordeek euskal presoan aldeko mobilizazioak egin dituzte Deban. Joan den larunbatean gose greba hasi zen, bihar arte, hilak 19, luzatuko dena. Gose grebalariai Debako Alamedan dagoen Gaztetxean daude eta horien artean bi elgoibartar daude. Antolatutako ekintzen artean, ostegunean elgoibartarrek enkartelada egin zuten. Larunbaterako, hilak 19, eskualdeko manifestazioa egiteko asmoa dago Deban goizeko 11:30etatik aurrera. Ordu horretan gose grebari amaiera emango zaio.

• **Herri Institutuko ikas-bidalarako zenbakiak**

Herri Institutuko 2. LOGSEko ikasleek Eroski Bidaiak-ekin antolatutako ikas-bidaiarako zozketan sarituak izan diren zenbakiak hauek dira: Iehenengo saria 169.334; bigarren saria 127.005 eta hirugarrena 200.179. Herri Institutuko ikasleek esan digutenez, Elgoibarren saldu-tako zenbakiak ez dira izan sarituak.

• **Jubilatuen bazkarirako izen-ematea**

Abuztuaren 3In, eguerdiko ordubietan izango den jubilatuen bazkarirako izena eman daiteke uztailaren 15etik aurrera 800 pta. ordainduz. Bazkarira joateko Jubilatuen Etxeko bazkide txartela eduki behar da eta gutxienez 60 urte beteta izan.

**Xabi Umez apaiza badoa Elgoibartik**

**Txomin Zabaleta apaiz ordenatu zen igandean**

**X**abi Gmez berak esan digutenez, irailean edo urrian Elgoibarko parrokia utzi egingo du. Joan den asteartean Gotzaindegiko ordezkariak Elgoibarren bilera egin zuten notizia herritarrei jakinarazteko. Izan ere, 27 urteko apaiz gaztea Eskoriatzako San Pedro elizako parroko izendatu dute. Parroko izateak ardura

gehiago izatea suposatzen du eta erronka handia bada ere, Xabik berak esan bezala, "Elgoibarren oso gusturago". Hiru urte eman ditu azkoitiarrak gure herrian eta denbora honetan gure herriko arazoak eta bestelakoak sakonki ezagutzeko aukera izan du. "Pena handia hartu nuen joan egin behar nuela jakinarazi zidatenean, baina gauzak horrela dira".



**Txomin Zabaleta apaiz**

Joan den domeka goizean, bi orduz luzatu zen mezan apaiz ordenatu zen Txomin Zabaleta Aranberri. Eliza nezka zegoen Txominen ordenazioak ikusmin handia sortu baitzuen. Izan ere, Txomin da apaiz ordenatzen den lehen elgoibartarra 24 urte eta gero. Gogoratu Jose Cruz Igartuaren ordenazioa izan zela Elgoibarrek ezagutu duen azkena, orain 24 urte hain zuzen. Jose Maria Setien Gotzainak emandako mezaren ostean, Kilometroak Batzordekoen oparia eta Haritz taldekoen agurra jaso zituen. Txominek eta beste 350 eigoibartarrek Kiruri jatetxean egindako bazkariaren bueltan ospatu zuten ordenazioa.

**Iban Barrenetxearen kartelak irabazi du Udalak antolatutako jaietako kartel lehiaketa**

**J**oan den ostiralean irabazi zuen herriko zenbait kolektibotako pertsonaz osatutako epaimahaiak 1997ko jaietako kartel lehiaketaren irabazlea. Iban Barrenetxea diseinatzaileak egindako kartela izan da saritua. Kartelean eliza agertzen da lehen planoan zapi gorri batek "lepoaldea" inguratzen diolarik. Sari gisa 50.000 pta. jasoko ditu Ibanek. Aipamen berezia Alazne Gonzillez diseinatzaile gaztearen kartelak merezi izan du. Honentzat 15.000 pta.ko saria izango da eta bere lanean ere eliza

ager-tzen da. Argazkian Ana Santolaya kultura zinegotzia eta sarituak agertzen dira, Iban Barrenetxea eta Alazne Gonzifiz. Aur-

keztutako 17 kartelen artean, bi dira haurrek egindakoak. Dorleta Loiola eta David Bilbatua dira artista gazte hauek.







### Zortii birralton-amonak dituen baurra jaio da Eigodiarren

Argazkikoak Maria Blanca Orza, 24 urtekoa, eta 28 urte dituen Marci Rodriguez Santas elgoibartarrak dira. Protagonista bihurtu dira hilaren 9an semetxo bat izan zutelako, Asier Rodriguez Blanco. Arraroa bada ere, umeak zortzi birraitona eta birramonak ditu. Seguruen birraitona-amona guztiak bizirik dituen elgoibartar bakarra izango da. Umearen aitona-amonak OIga Orza, Celso Blanco, Tere Santas eta Marciano Rodriguez dira, denak Elgoibarren bizi direnak. Birraitonak, berriz, honako hauek dira: Maria Lopez, Ramon Orza, Maria Sestu, Eulogio Blanco (hauek Pontevedran bizi dira) eta Virginia Fernandez, Fernando Santas, Basilia Poza eta Marciano Rodriguez (hauek Eibarren eta Burgosen bizi dira gaur egun). Zorionak denoi!

### • San Rokeko jaietako bertso-ataria

Datorren abuztuaren 15can, San Roke bailarako jaien barruan, bertso-afaria izango da Zeberio eta Mañukorta bertsolariekin arratsaldeko 8:30etatik aurrera. Afarirako txartelak salgai daude 3.000 pta.tan San Rokeko lokal sozialean eta Otxak tabernan.

### • Igeriketa trabesia

Hirugarren urtez, Mutriku eta Deba arteko igeriketa trabesia izango da hilaren 27an, domeka. Urgazi Triathloi Taldeak eta Eibarko Thriatloi Taldeak elkarlanean antolatu dute. Trabe-siak 2-3 kilometro dauzka eta aurtan Mutrikun izango da irteera eta Deban iritsiera. Goizeko 10:30etan hasiko da frogak. Parte hartu nahi dutenek ordu erdi lehenago Mutrikuko hondartzan egon beharko dute.

### • Gaztetxea San Bartolome jaietarako irekitzeko asmoa dago

Gazte Asanbladak eta Udal Gazte Batzordeak jakitera eman digutenez, Pedro Muguruza etorbideko Jarbe lantegian kokatuko den Gaztetxea berritze lanetan dago. Bi erakundeon nahia San Bartolome jaietarako dena prest izatea da. Datorren astean Gazte Asanbladak eta Udal Gazte Batzordeak hitzannen bat sinatuko dute Gaztetxearen gestioa Gazte Asanbladaren esku uzteko. Talde honek jakinarazi digunez, txukuntzen, margotzen zein etorkizunean gauza bakoitza nola geratuko den erabakitzen lana badagoenez, Elgoibarko gazteriarri dei egiten diote laguntzera joan dadin. Gazte Asanbladakoak arratsaldero bertan izango dira. Honez gain, jaietan egin beharrekoak erabakitzeke daudenez, asteroko asanbladetan parte hartzeke dei egiten diote gazteriarri.

## Maria Angeles Azpiazu

A  
S  
T  
R  
E  
R  
I  
A



A  
S  
T  
R  
E  
R  
I  
A

Azpilikueta, 24, MENDARO Tel. 75 50 86



P  
U  
B

# ARRATS

Zelaikoa Plaza, MENDARO. Tel. 75 50 58

# Ehundaka herritar elkartu zen udaletxe parean ETArek ekintza salatzeke

Aiderdi guztiek, HBk izan ezik, bat egin zuten Ajuria Eneako komunikatuarekin

Aspaldiko partez Udaletxeko areto nagusia herritarrez bete zen asteleheneko ez-ohiko plenoan. Guillermo Garate alkateak Ajuria Eneako Mahaiaren komunikatua irakurri zuen eta bozketan alderdi guztiek baietza eman zioten HBk izan ezik. Plenoaren amaieran herritarrek "kanpora, kanpora" oihukatu zuten HBko zinegotziak aretotik ateratzen ziren bitartean. Istiluek kalean ere jarraitu zuten eta Udaltzaingoa parte hartu behar izan zuen jendea bere onera ekartzeko.

**A**juria Eneako Mahaiaren idatzia-riaren bidez, alde batetik, Blaneo Garridoren familiari elkartasuna adierazi nahi diote alderdiek. Bestetik, ETA salatzen du herriaren ahotsa ez entzuteagatik. Era berean, komunikatua esaten denez, "ETA inoiz baino gehiago bakarrik dago eta HB isiltasun horrekin konplize bihurtu da". Halere, "herritansen artean amorrua nagusi den une hauetan mendekurik ez egotea eskatu nahi dugu. Ez gaitzen euren jokoan sartu. Gizarte demokratikoa inoiz baino sendoagoa dago eta bide horretatik irabaziko diogu ETARI: demokraziaren elkartasunarekin eta legearen aplikazio zorrotzarekin, beti ere bakearen bidetik".

Konaunikatua irakurri eta gero PPko zinegotziak, Juan Carlos Abianek hartu zuen hitza eta bere hitzetan, "amorrua, indignazioa eta tristuraz beteriko une hauetan, eskerrak eman nahi ditut jasotako elkartasun keinu guztiengatik. Eta behin eta berriz errepikatuko dut

biolentziaren aurka nagoela argumentu politiko hezala".

## HBren komunikatua

Azkenik HBko zinegotzia den Pello Mendizahalek alderdi honek kaleratu duen komunikatuaren berri eman zuen. "Gatazka honetan ez da irtenhede politikorik bilatu. Ez dugu ahaztu behar egun hauetako ekintzen atzean euskal presoen dispersioa izkutatzen dela. Itunaren komunikatuak ez dio gatazkari irtenbiderik ernaten eta komunikabide gehienak jolas berean sartu dira, ekintzak izkutatuz eta legea betetzen ez dutenen jarrera justifikatuz".

## Kontzentrazioa eta manifestazioa

Eguerdiko 12etan, ehundaka herritar hurreratu zen Udaletxe parera eta ordu erdiko isilunea gorde ondoren manifestaldia egin zuten isiltasuna eta



HBk komunikatua irakurri zuen unea.

txaloak tartekatuz. Denda guztiak itxi egin zituzten. Urtetan ikusi ez bezalako manifestaldia izan zen, Plazan hasi eta San Frantzisko kalean zehar luzatzen zen jende erreka Miguel Angel Blancoren hilketa salatzeke. Amaieran, manifestariak berriz Plazan bildu ziren. Alkateak eskerrak luzatu zituzkien herritar guztiei eta txaloekin amaitu zen ekitaldia.



Lehendabizi Plaza Handian bildu zen jendetza. Ondoren manifestazioa egin zuten kaleetan zehar.



☎ 64401 1144 Ct. Cbt.p.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

**MEKANIZATUEN TAILERRA**

**UCUTIQUE IDEL IDAS**

Enpanadak

Enbutidoak

Baserriko ogia

Bolleria

Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 n• 74 33 9



# Killi **BARREN**

Uztaiaren 8a  
42. zkia

M E N D A R O K O      G E H I      G A R R I A

# A

Argazki hau Antonio Iriondok lagatakoa da. Esan digunez, erretratu 1961. urte inguruan aterata dago. Bertan azal-

tzen diren sei lagunak Santa Ana ermitan daude jaiak ospatzen arropetan ikus daitekeen bezala. Jakin dezagun jarraian, nor diren te honetako protagonistak. Goitik eta ezkerretik hasita:

Ignacia Iriondo, Juanita Garate eta Margari Lazkano. Behean, ezkerretik esku-mara: M. Angeles Urain, Juanita Ulazia eta Ana Maria Zabaleta.



# S.A.

## Eraikuntza mekanikoali

F: 04434441/1 ~ 114/1<sup>45</sup>140,

111;0

- o ijidoien husfuliedralio boribfik
  - o Erreminh makinefilzaho eleittro-bonbdk
- Efignfieentzdho

Mendarozahl duna, ZiQ • Tel: 7S 60 47 • MEN011110

# Jaietarako prest!

*Uztailaren 18an gaude jadanik eta herriko festak gainean ditugu, IVlendarotarron urduritasuna nabaria da eta honez gero, etxe askotan zapf berdeari astindu dizkiote hautsak. Tanborrada eta txarangako entsaioak, futbfto txapelketa eta play-back-eko azken ukituak aurrera doazen heinean, dena prest dago Santa Ana jaiiei hasiera emateko.*



sioan igoko dira mendarotarrak Santa Anara eta goian meza izango da, ondoren ogitartekoa eta txakolina dastatzeko aukera izanik. Arratsaldean herrikirolak izango dira eta gauean afari herrikoia. Afarirako atera ziren txartei gehienak salduta daude da goeneko. Afaria Montes-Blanco orkestak alaituko du. Jaiiei amaiera Umeen

atorren ostegunean, hilak 24, arratsaldeko 7etan emango zaie hasiera jaiiei Azpilgoetako elizan egongo den salbearekin eta urtero bezala, Bizi-Poza txarangak kaleak alaituko ditu. Txarangako partaidea den Leire Iriondok esan digunez, "jaiak datozela eta entsaio gehixo ein ditxugu eta batzuk tanborradakuekin".

Aurten, gainera, jaien egitasmoan ekintza berri eta berezi bat izango da. Izan ere, nahi duten herritarrek globoan ibiltzeko aukera izango dute jaien lehen egunean gaueko 1 letan izango den Globo hegaldian.

## Play-back lehiaketa

Uztailaren 24an musika eta moztroz jantziko da Gortati pilotalekua. Gaueko 11:30etan hasita play-back-a egingo dute hainbat eta hainbat kuadrila mendarotarrek. Iaz Alaska, Azucar Moreno, Drag Queens-ak eta bestelakoak izan ziren ikusgai eta entzungai eta aurten ere ziur ikuskizun handia aurkeztuko dutela partehartzaileek. Gainera, ohiturari jarraiki, Play-back lehiaketa eta gero diskoteka egongo da

pilotalekuan bertan goizaldera arte.

Gaupasazaleek Santixo egunean aukera izango dute goizeko 8:30etan izango den sokamuturren parte hartzeko. Eguerdi aldera, berriz, iaz lehen aldiz egin zen makailo txapelketaren bigarren edizioa izango da. Jakin ahal izan dugunez, gainera, jende askok eman du izena lehiaketan. Santixo egunean, baita ere, nagusien tanborrada izango da gaueko 11etan. Aurten tanborradan ez dugu Elgoibarko Mautitxa txaranga izango eta haien ordez Debaiko Banda izango da gure artean. Bukatzeko, gauean su-artifizialak eta Izadi taldearekin dantzaldia izango dira.

## Santa Ana eguna

Santa Ana egunak tradizio handia du mendarotarren artean. Antzinatek Santa Ana ermitaraino igotzeko ohitura dago Santa Ana egunez. Aurten, lehenengo aldiz, Azpilgoetako elizatik proze-

egunak emango die eta aipatu beharra dago egitasmoan azken orduko aldaketak izan direla. Egun honi umeen partekarekin emango zaio hasiera eta goizeko 1 letatik aurrera Euskadiko lau t'erdiko jubenen pilota txapelketa ikusteko aukera izango da. Hauen ostean Galarza eta Berasaluze arituko dira partidua ETBk zuzenean emango duelarik. Arratsaldeko 6etan umeen tanborrada izango da Bizi-Poza txarangaren laguntzaz eta hauek emango diote bukaera jaiiei.



# NAHIA

## HILEPAINDEGI MISTOA

Oi-zda p ~ 1<sup>na</sup> //

Jose Agustin Urbieta Goikoetxea

## ALBAITARIA

Ir 75 SO 34

Kotxekoa 908 77 40 85

Azpilgoeta, 25 - 1 esk.

20850 MENDARO

*Jaiak ondo pasatu!*



## Nola bizi dituzu Santa Ana jaiak?



Naiara Eizagirre, 10 urte  
"Gustora ibiltzen naiz. Ilusio haundixa dakat Play-back-erako baina ez digute lagatzen parte hartzen ez dakagulako 14 urte. Tanborrada ez zait gustatzen eta nahiko nuke autotxo-keak eta umeentzat jolas gehiago egotea. Umeen egunian tanborrada bakarrik dago eta Play-back-a ere egon beharko litzake".



Luisa Areitio, 61 urte  
"Pozez bizi ditut jaiak. Asko gustatzen jataz eta afari herrikoirako kriston gogua dakat. Play-back-a ere asko gustatzen jata, saltsa hori zoragarrixa iruditzen jata. Gitxien gustatzen zatana zezenak dia; ze bildurra ematen die. Santa Anako ambientia ere politxa izaten da, dantzan ein eta... Baina egun gitxi dia. Egun gehixo egotia gustauko zitzatan".



Olatz Urbietia, 16 urte  
"Azkenaldi honetan ilusio gehixokin nago gaztientzat gauza gehixo daudelako. Gogo haundixa dakat Play-back-a egiteko. Jaixetatik Joselu anaiak eta Montesblancos kenduko nitxun eta beste talde batzuk ekarriko nitxun, Lisker adibidez. Bakailua biharrian paila bat edo zeozer eiteza jarriko nuke eitzeko gero danak batera jateko."



Jose Anjel Isasti, 35 urte  
"Ilusio haundixa dakat aurtengo jai-xetarako. Batez ere lagunekin parranda egiteko. Santa Ana eguna politxa izaten da eta badakat gogua bertara juteko. Baina gogo gehixen lagunekin elkartu eta parrandia eitzeko dakat. Jaixetatik gitxien gustatzen jatan juerga ein eta gero eukitzen dedan ajia da".

Liml.grn wUh51111(DW)

eUztailak 19 **larunbata**

0:0 Mendaroko VIII. Margo Lehiaketa.

Plater tiraketa, Santakruz zelaian eta Margo lehia.

Uztailak 20, igandea  
ahartzaroari omenaldia

1:

Meza nagusia Goiati pilotalekuan.

Ondoren, jaialdia dantzari eta trikitalariekin.

Bazkaria Aizpe elkartean.

Salhea eta Santanari herriko zapia jartzea Azpil-goetako elizan.

- Kalejira Bizi-Poza txarangarekin.

Hegaldia globoan.

Mozorro dantza Joselu Anaiak taldearekin Goñati pilotalekuan.

Play-Back lehiaketa eta ondoren diskoteka goizaldera arte.

zta a ostiral

antixo egu

8:30 **urra** Garagartzan.

12:0 Makailo txapelketa frontoian.

3:00 **apeketaren sari** hanaketa.

17:30 **kamutun** Garagartzan.

22:45 **artifizialak** Zatnorano Caballer-ekin.

23:00 **gusien** tanborrada Debako Bandarekin.

C3n oren, dantzaldia Izadi taldearekin.

**runbat**

Santana **ertira**

9:00 Sok amutunt Garagartzan.

10:31 **ozesioa** Azpilgoetako elizatik Santanara. eza Santanako ermitan.

- Ondoren, Erromeria Santanako zelaian trikitalari eta bertsolartekin.

Herri Kirolak Garaganzako plazan.

henikoia frontoian Montesblancos orkestak alaituta.

**pait.** **ntesblancos** taldearekin.

eUztailak 27, igandea,

Umeen eguna

Kalejira

10:0 Umeentzako jolasak, Ikastolako patioan.

11:0 **ota** partitluak Goñati pilotalekuan:

- Euskadiko Pilota txapelketaren finalak.

- Gaktrza-Berasaluzeren aurka.

Umeen tanhorrada. Bizi-Poza txarangarekin.

Kalejira Bizi-Poza txarangarekin eta jaien bukaera.

**11~0.-**

211

# LANDAI BEREZITASUNAK

**ERRETEGIA**

.dib **LEGATZA CHANPAGNE ERARA GANBA ETA INTXAUFU PUDDING—A**

Garagarza, 32 s' 75 60 28

*paia' offido zdec'*

## **Galarza-Berasaluzeren arteko pilota partidua**

Dagoeneko Mendaron jokatzen ari den pilota txapelketa azken txanpan dago. Gaur, ostirala, gaueko 10etatik aurrera finalaurdenak jokatuko dira: Etzaniz/Sendino, Antxia II/Egimendia, Mintegi/Arrieta eta Ubera IUMikel. Finalerdiak asteartean jokatuko dira gaueko 9etatik aurrera eta finalak uztailaren 27an, igandea, goizeko 11etan. Finalaren ostean izugarritzko pilota partidua ikusteko aukera izango da: Galarza-Berasaluzeren aurka, duela 15 egun Elgetan jokatu zuten partidua errebantxa. Partidu hau ETBk zuzenean emango du.

## **• Rock koutzertua Trinitaten**

Bihar, larunbata, rock koutzertua izango da Trinitaten Mendaroko Lili Moon musika taldeak antolaturik. Gaueko 10:30etatik aurrera Po zumaia-rrak eta 6nemen9 elgoibartarrak arituko dira hurreratzen diren guztiei musika bikaina eskaintzeko.

## **Herri Eskolako irteera**

Ekainaren 28tik 29ra Mendaroko Herri Eskolako 3., 4., 5. eta 6. mailako haurrak Narbartera joateko aukera izan zuten. Arno Guraso Elkarteak antolaturik 40 bat ume eta nagusik aste-hurua pasa zuten Nafarroa aldean. Eguraldiak asko lagundu ez zuten arren, antolatzaileen

esanetan oso ondo ibili ziren. Argazkian Bertiz-eko parkean ikusi ditza-kegu taldeko guztiak.



## **Mendaroko Txirrindulari lasterketa**



Larunhatean Mendaroko XII. Txirrindulari Lasterketa izan zen. Arratsaldeko 4:30etan 113 txirrindulari atera ziren Kilimoietatik. Ibilbidea 82 km.koa izan zen eta 33 txirrindulari iritsi ziren helmugara. Irabazlea Andoni Aranaga izan zen eta 2 h.15'50"ko denbora egin zuen. Mendiko saria ere Aranagak jaso zuen.

## **VIII, hive Librako margo sariketa**

Santana jaien atarian egiten den ekintza hau bihar, larunbata, goizeko 9etatik aurrera izango da Mendaroko kaleetan zehar. Gaia librea da haina beti ere Mendarorekin zerikusia izan behar du. Lehen saria 100.000 pta.koa izango da, bigarrenak 50.000 pta. jasoko ditu eta herriko lan onenari 30.000 pta. emango zaizkio. 14 urtetik beherako onenarentzat 10.000 pta. daude. Sariak arratsaldean banatuko dira.





38 urte eman ditu irakas-kuntzan. Izatez, nafarra den emakume honek umetan ez zuen maistra izan nahi, gurasoek hala aginduta egin zuen magisteritza. Baina ez du baxterez damurik, "oso gustura ibili izan naiz irakas-kuntzan. Benetan aberasgarria izan da". Azken urteak Herri Eskolan pasatu eta gero orain, 60 urte dituenean, aurrejubiliazioa eskatu du. Gaurkoan M. Luisa Zabakarekin izan gara solasean, herriko neska-mutil askoren maistra izandako emakurri alseginarekin.

# MA LUISA ZABALZA

## Ikasleak zutaz gogoratzeak ilusioa egiten du"

—**Maistra aginduz.**

- Bai, hala da. Umetan ez nuen bokazio konkreturik eta etxean magisteritza ikasi behar nuela esan zidaten, aukerarik eman gabe. Niri ez zitzaidan inporta eta ez dut damurik. Bete-betean asmatu zuten.

—**Nola gogoratzen dituzu lehen urteak?**

- Irturtean egin nituen ikasketak eta gero urtebete pasa nuen oposaketak prestatzen. Plaza atera nuenean Baztango herri txiki batera bidali ninduten irakasle. Iritsi nintzenean hotza zegoen, nire bila bizikletaz etorri zen neska bat, herri txikia zen... Baina esperientzia polita izan zen. Kariño handiarekin gogoratzen ditut herri txiki haietan pasatako uneak.

—**Zein adinetako haurrekin hasi zinen?**

- Orduan ez zegoen aukerakerik. Herri txiki askotan maistra bakarra egoten zen eta zuk arduratu behar zenuen haur guztiez eta denetik irakasteaz. Zentzu guztietan aldatu dira gauzak. Esate baterako, akordatzan naiz nola Baztango herri hartan ostatuan ematen genituen klaseak eta gelara igotzeko ikuilutik pasatu behar ginen. Gaur egun demaseko instalakuntzak dituzte eskolek.

**Beranduago Elgoibarre-ra ezkondu zinen.**

- Bai, nire senarra nafarra da baina lan kontuengatik etorri behar izan genuen. Hasieran ez neukan eskolan lan egiteko aukerarik baina Altzolan mojek bazuten eskola pribatu bat eta han hasi nintzen. Gero, Altzolan bertan eskola publikoa ireki

zuten eta bertan aritu nintzen eta beranduago Pedro Muguruzako eskoletan zentralizatu zuten Altzoiakoa eta nik ere etorri beharra izan nuen.

—**Aldaketetara egokitzea zaila izan al da?**

- Ez. Aldaketak ez dira egun batetik bestera izaten. Irakasleok erreziklatzeko ikastaroak egiten ditugu eta poliki-poliki aldaketen arabera egokitzen zoaz. Gainera, asko ikasten da haurrekin.

**Guztiekin?**

Denetik dago, noski. Baina urteekin gauza onak geratzen dira batez ere eta poz handia ematen du zure ikasle izandakoek bizitzan aurrera egin dutela ikusteak. Bere hezkuntzan eta bizitzan parte txikia izan duzu zuk ere eta hori inportantea da. Niri gehien 3., 4. eta 5. mailako umeak gustatzen zaizkit. Adin horretan oso kritikoak dira, espontaneoak eta era berean maitasun asko ematen dute. Umeek ez dute gezurrik esaten eta batzuetan min egin dezakete baina banaka hartu eta landuz gero, ulerkorak dira.

- **Penarik ematen al dituzute?**

- Beti ematen du. Urte asko izan dira, ikasle asko ezagutu ditut, lankide oso jatorrak, lagun handiak egin ditut.. Baina urteek aurrera egiten dute eta bidea utzi behar zaie gazteei. Lehengo egunean autobusean nindola txoferra hurreratu zitzaidan eta bere irakaslea izan nintzela esan zidan. Ni ez nintzen gogoratzen baina bera bai. Ikasleak zutaz gogoratzen direla ikusteak ilusioa egiten du.

### EESTEK ESANA

"Lagun eta langile ezin hobea. Lan egiteko eta eskua luzatzeko beti prest"

ANDONI SEGUNDO



# Nor ote da?

**B**ARREneko 201. zenbakian ar gitaratu genuen "Nor ote da?" lehiaketaren azken pertsonaia. Hasieran agindu bezala, asteroko pertsonaia nor den asmatu duzuen irakurleen artean zozketa egin dugu. Saritua Ana Maria Mugerza Odria izan da eta berarentzat afaritxo bat daukagu. Zorionak berari eta eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi.


## Anastasia Aizpurua Arakistain (1895-1973)



- 1895ko urtarrilaren 22an jaio zen Itziarren. Bi anai eta lau ahizpa ziren.
- 20 urterekin ezkondu zen eta kalean bertan behi bat zuten etxerako esnea izateko.
- Nolanahi ere esne hori ez zen bat ere nekerik gabekoa, egunero hiru kilometro egin behar izaten baitzituen astoerekin behiarentzako belarra ekartzeko.
- Emakume handia ez bazen ere, bai fina eta garbia. Goizean goiz bezperako umeen arropak garbitu eta plantxatu ondoren gertu izaten zituen bere zortzi mutilak eta alaba txukun eta garbi jartzeko. Garbiketa lanak ez ziren bat ere erosoak izaten, bide luzean joan behar izaten baitzuen arropak garbitzeko.
- Bere seme-alabak ez ezik, lehenengo semea izan arte, kanpoko neskatxo bat ere hazi zuen.
- Sukaldari aparta zen. Entzute handikoak ziren bere baratxuri zopak.
- Senarrak kanpoan egiten zuen lan. Lehendabizi Tarragonako kaleetako galtzadak egiten, gero harrobian eta azkenik, Lasturrerako bidearen enkaxadua sartzen.
- Gerra aurretioxan etorri ziren San Pedro bailarako Saurtixa baserrira, bertan zegoen senarraren aita jasotzera.
- Saurtixan bizi izan zen 1966ra arte. Azken urteak kalean eman zituen. 1973ko abenduaren lean hil zen 76 urte zituela.

Maritxu Loiola

201. zenbakiko "Nor ote da?" lehiaketaren erantzuna Jose Gurrutxaga da.



Nor ote da? lehiaketako protagonistak izan diren elgoibartarren izen-abizenak honako hauek dira: Sabin Arriola, Lazaro Muguruza, Sabin Osoro, Modesto Mujika, Patxi Osoro "erlojeroa", Felisa Muguruza "Berdun", Jabier Arriola "Arriola IV", Eduardo Iraegi eta Jose Gurrutxaga.

## TXIRRISTAKA Pub

Mendarozabal, 1 Tel: 75 61 39



INDUSTRIAS  
131, S.A.  
MAKINAK NEURRIRA

Manipulazioa eta Muntaiak - Makina Berezia  
Bruitidorak - Kontrol dimentsionala

**Jai alaiak  
igaro itzazue!**

Donostia-Bilho Errep. 53. km. - 20870 MENDARO - Tel. 75 50 00 Faxa: 75 51 62

## CHERKI IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan  
konponduko dizugu igogailua

☎ (943) 20 35 15 • ☎ ABERIAK (943) 20 35 15  
Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 **EIBAR**

**PINTURAK**  
PEDRO PEREZ BERISTAIN  
San Roke, 30 behe. 74 36 52 - 74 27  
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZATZEAK PINTAKETA





Aste honetako erretratua **Maitte Rementeriak** laga digu. Uztai-laren 24an Nazioarteko Folklore Jaialdia izango dela aprobetxatuz, duela 20 urte inguru ateratako erretratu hau erakustea pentsatu dugu. Bertan Elgoibarko Izarrako dantzari, txistulari eta arduradunak ikus ditza-kegu, Angiozarko Euskal Jaira egin-dako irteeran.

Ikus dezagun zein diren erretratuan azaltzen direnak:

Atzetik hasita ezkerretik eskumara: **Jon Imanol Rementeria, Imanol Garzia, Iñaki Berasaluze (t), Josu Mujika, Iñaki Mujika** eta **Jesus M. Sarasua**.

Bigarren ilaran: **Amaia Gorosabel, Aitor Garate, Martin Gil, Agurtzane Epelde** eta **Jose Inazio Sarasua**.

Hirugarren ilaran: **Jose M. Kortaberria, Goreti Albizu, Itziar Etxabe, Miren Arrate Arrieta, Joseba Legorhuru** eta **Imanol Larrañaga**.

Laugarren ilaran: **Susana Peñalba, Itziar Goñi, Miren Josu Mugerza, Arantza Elizburu, Amaia Makazaga, Agurtzane Rementeria, Imma Alberdi** eta **Maria Luisa Osoro**.

Bosgarren ilaran: **Ibon Basalo, Alberto Ansuategi, Jon Zabala, Jesus M. Maiztegi, Aitor Urain, Joseba Bilbao, Jon Etxabe, Iñaki Zengotita** eta **Anton Mari Arizmendi**.

Makurtuta: **Anabel Arrizabalaga, Miriam Ruth Garate, Edurne Bilbao, Elvira Etxabe, Berta Castellanos, Maitte Alzibar** eta **Nekane Ortuoste**.

## TellabWe

### ITURGI NTZA

- \*Berogailuak
- Suteen aurkako instala-kuntzak
- Gas instalakunizak

Ondo pasa  
Menduroko iniuk!

Azpilgoeta 19.  
tr 75 50 62 - 907 75 50 62  
**MENDARO**

**HERRI-GAIN**  
**ERRETEGIA**

San Pedro auzoa 4  
( 74 30 40) ELGOIBAR

**Truk**

Elgoibar

San Frantzisko, 27  
Tel. 74 26 21



# Futbitoaren antolatzaileek finalean gertatu zenari buruzko bertsioa plazaratu dute

Urasandiko Futbito Txapelketaren finalak sortu zituen gora-beheren oihartzuna ez da oraindik isildu. Oraingoan Futbito Txapelketako antolatzaileek idatzi bat kaleratu dute "behin-betiko gertatutakoa azaltzeko. Ez dugu ekipo batek edo besteak txapelketa irabazteko inongo interesilc. Gure asmoa futbitoa dibertsioa izatea eta herriko gazteek areto futboleko ekipoetan federatu bezala jokatzeko aukera eskaintzea da".

**F**utbitoko lehenengo finala, maiatzaren 31koa, atzeratzea erabaki zuten antolatzaileek trofeoak ez zirelako iritsi. Hurrengo data ekainaren 6a zen. Idatzian esaten denaren arabera, "Orbela taldeko Juan Romerok eguna atzeratzeko eskatu zигun taldeko jokalaririk batzuek asteburu hartan ezkontza zutelako Palentzian. Euren eskaerari erantzunez, finala atzeratu egin genuen beste taldeari aurrez abisua pasatu ondoren". Finala ekainaren 15erako jarri zuten. "Udal Kirol Patronatuak esan zигun Haundi taldeak igoera faseko partidua zeukala eta bi partidua ba-

tera izan ez zitezten, igande goizean jokatzeko gomen-dioa luzatu zигun". Igande goizean Orbela taldekoak ez ziren agertu eta antolatzaileek deskalifikatzea erabaki zuten, "arautegiak hala dioelako. Gerroago jakin genuen ez zirela agertu ez zutelako nahi izan".

Egoera honen aurrean antolatzaileek beste final bat antolatzea erabaki zuten. Hirugarren eta laugarren postuetan geratu ziren taldeen arteko partida irabazten zuenak Karkis taldearen aurka jokatzeko zuen finala. Ekainaren 19an, osteguna, jokatu zen semifinal hau eta Sanroketarrak izan ziren irabazlea. Finalaren data, azke-



Orbela eta Karkis-en arteko finalaren data aldaketak tirabirik sortu zituen Orbelako kideen eta antolatzaileen artean.

nik, ekainaren 21erako jarri zuten. "Igande hartan, gure harridurarako, Orbela finalera agertu zen. Orbelakoak finala oztopatzen ahalegindu ziren. Egoera honen aurrean Karkis txapeladun, Sanroketarrak bigarren eta Berrogei Duro hirugarren izandakoa erabaki genuen".

**If** | **fi RRO G ij ETEI**  
**ZENTRO PSIKO-MEDIKOA**



**Ziurtagiri medikuak**  
**Arma eta gida-baimenak**

**ORDUTEGIA:**

• **GOIZEZ** •

Astelehena eta  
asteazkena  
10:30 - 12:30

• **ARRATSALDEZ**

Astelehenetik  
ostiralera  
4:30 7:30

**ABUZTUAN**  
**ZABALIK**

4tik 9ra  
eta  
25etik 29ra

**ORDUTEGIA:**

10:30 - 12:30

Arragueta kalea, 2 bis A (Hazienda ondoan eta ONCE parean) Tel: 700 700 EIBAR



# 46 talde ari dira parte hartzen Mintxetako Futbol 7 Txapelketan

Partaidetza aldetik errekorra lortu du aurten txapelketak

**K**iroi Patronatuak antolatutako Mintxeta 7 Futbol Txapelketaren III. edizioa finalerdien fasera iritsi da. Larunbatean, goizeko 1 letan, finalerdia jokatu dira eta igandean, goizeko 11etan hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partidua hasiko da. Finala, berriz, eguerdiko 12etan jokatu da. Finalen ostean sari banaketa ekitaldiari ekingo zaio. Lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren sailkatuentzako trofeoa egongo da eta goleatzaile onenak eta atezain onenak ere jasoko dute saria.



Finala igandean, eguerdiko 12etan jokatu da. Ondoren sariak banatu dira.

## Txapelketaren arrakasta

Zergatik dauka txapelketa honek horrenbesteko arrakasta? Horixe da Udako Kiroi Patronatuko zuzendariari galdetu dioguna. Lehenengo edizioan 16 taldek eman zuen izena. Iaz 36 ekipo izan ziren eta aurten 46. "Iaz aritu ziren taldeak askotxo baziren, aurtengoa pasada bat izan da". Arrakastaren arrazoiak hauek izan daitezke Patronatuko zuzendariaren ustetan: "batetik, data ezin hobeak dira jendea oporretan baitago. Bestetik, Mintxeta bezalako zelai batean jokatzeko erakargarria izan daiteke eta

azkenik, inguruetan futbol txapelketarik ez egotea ere izan daiteke faktore inportante bat". Adin aldetik 14 urteko gazteetatik hasita 35 urtera bitartera arteko pertsonen hartu dute parte. Elgoibarko taldeak asko izan badira ere, Deba bailara osoko ekipo asko aritu dira txapelketan; Deba, Oñati, Ermua, Eibar, Mendaro, Soraluze etab.ekoak.

Bestetik, uztailaren 21etik 25era bitartean Kutzak antolatutako gaztetxoentzako Futol 7 Txapelketa jokatu da Mintxetan goizeko 11:30etan hasita, astelehenetik ostiralera bitartean. Gipuzkoa osoko taldeak ari dira jokatzeko txapelketa honetan.

## Hilagen 25ean jokatu da Signiako Pilota Txapelketaren finala

**D**atorren ostiralean, Santiago eguna, **E**starta Elkartek antolatutako Eskuz Binakako Pilota Txapelketaren azken partidua jokatu da. Parte-hartzaileak joan den astean izan ziren finalerdietako irabazleak izango dira. Lehen finalerdian Txurruka eta Leiaristik 22 eta 17 irabazi zieten Ibariuzea eta Iparragirri. Hauen aurkariak bigarren finalerdia irabazten dutenak izango dira. Final honekin batera gaztetxoekin mallako azken partidua jokatu da. Iban Rojo eta Jon Gu-

rutz gazteen artean izango da norgehiagoka. Estarta Elkartek luntxa eskainiko du finalak amaitu ostean.



E' MAITZAK'	
<b>Futbol 7 Txapelketa</b>	
<b>SAILKAPENA</b>	
<b>A Taldea</b> .....	Puntoak
Lojantxiris .....	13
Potxokoak .....	12
Waka .....	7
Mutil. Uzuri .....	6
La Orden Frantziskana .....	3
Debanda .....	1
<b>B Taldea</b> .....	Punloak
Akatu .....	12
Zokoa .....	12
Vultur Gryphus .....	9
Arkupe .....	7
Tsunards Team .....	4
Sex Symbols .....	0
<b>C Taldea</b> .....	Punloak
Malas Hierbas .....	15
Xare Taberna .....	13
Peria Alaitz .....	6
Txkibindu .....	6
Wino .....	6
Paotxa .....	1
<b>D Taldea</b> .....	Puntoak
Lagun Toki .....	15
Karkis .....	12
Berrogei Duro .....	7
Ifixistau .....	6
Ere Bai .....	3
Nothingan Prisa .....	1
<b>E Taldea</b> .....	Puntoak
La Inkisizion .....	13
La Colina .....	11
P.S.K. ....	9
E Astigarraga .....	7
Ikus Optika .....	4
Tomas y Diez mas .....	3
<b>F Taldea</b> .....	Punloak
Pedrusko .....	13
Maser .....	11
Spartak Pitxote .....	10
Ddaberi .....	4
Aupa Tu .....	3
Aide Globun .....	1
<b>G Taldea</b> .....	Puntoak
Anorthosis .....	12
Euro Purky .....	9
Excalibur.. ..	fi
Bar La Amistad .....	3
Beti Sulan .....	0
<b>H Taldea</b> .....	Puntaak
P.G.B. ....	10
Askasi bar .....	10
Aubixa .....	6
Ind. de Varedun .....	3
Ford Lerun .....	3
<b>GE DA</b>	
<b>Futbol 7 Txapelketa Mintxetan</b>	
Larunbata 11	
11:00 Finalerdia	
<b>Igandea, 12</b>	
11:00 Hirugarren eta laugarren postuak	
12:00 FINALA	
<b>Sigmako pilota Txapelketa</b>	
<b>Ostirala, 25</b>	
11:00 FINALA	

# Argentina, dkrania eta Haritz Dantzari Taldekoak XI. Folklore Jaialdian

Datorren ostegunean, hilak 24, gaueko 22:30etan hasiko da Haritz Dantzari Taldeak antolatutako XL Nazioarteko Folklore Jaialdia. Aurten Ukraina eta Argentinako dantza tradizionalak ikusteko aukera izango da "Ballet El Camarucó y Conjunto Musical Catango" argentinarren eta "Goritsvit" ukrainiar folklore taldem eskutik. Ohi denez, Haritz Dantzari taldeak Euskal Herriko dantza ezberdinak erakutsiko ditu.

**P**ortugaleteko Elai-Alai taldeak antolatzen duen Folklore Jaialdiari esker posible izango da Argentinako eta Ukrainiako dantza taldeak Elgoibarren ikustea. Hamaikagarren jaialdi hau Kiroldegian izango da gaueko 22:30etatik aurrera. Arratsalde partera, 7etan hain zuzen, Udal korporazioak harrera egingo die bi talde hauei Udal areto nagusian.

## Camarucó eta Catango

Camarucó izenpean Patagonian sortutako dantzari taldea biltzen da. 12 eta 15 urteko gaztetxoek eratu zuten 197In. Jaialdi ezberdinetan lortutako arrakastari esker Nazioarteko Folklore Jaialdian Batzorde Antolatzaileko kide bihurtu zen taldea. Urte hauetan talentu handiko dantzaren bidez erakutsi izan dute Patagoniarekiko sentitzen duten maitasuna.

Catango taldeak musikari dagokion partea beteko du. Hauek ere Patagoniako dira eta modurik xumeenean euren folklorea adierazteko gai dira.

## Goritsvit

Ukraniako Lwow herrikoa da Goritsvit folklore konpainia, Ukrainiako bigarren hiri inportanteenakoa. 1978an sortua, dantzen ikusgarritasuna da talde honen adierazgarri nagusia. Arrakasta handiko talde honi birtuosismo eta kalitate bikaineko musika taldeak laguntzen dio.

Azkenik, Haritz Dantzari Taldeak Euskal Herriko toki ezberdinetako dantzak eskainiko ditu. Udal Txistulariek osatzen dute musika atalari dagokion partea.

Sarrerak 500 pta.n daude salgai Txankakua dendetan. Jubilatua, 16 urtez azpiko eta gazte txartela dutenek 200 pta.ko txartelak eskura ditzakete. Txankakua



Goian Haritz Dantzari Taldekoak. Behean eta ezkerrean, Ukrainiakoak eta eskuman, argentinarrak.

Merkatari eta Zerbitzari Elkarteak txartel guztien artean zozketa egingo du. 10.000 pta.ko 5 sari daudelarik.

**GOXOKI**  
**GOZODENDA**  
Mendarozabal, 5 - ☎ 75 51 90 - Mendaro

**ORMOLA**  
TABERNA  
AZPILGOETA, TEL. 75 50 16 MENDARO

**Cordon, Vilarchao, c.b.**  
**DEKORAZIOA**  
MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,  
51NTASOIA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,  
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.  
San Roke, 7 behe. Te1.74 28 74 74 05 70

**ARBO ETA** Jatelxon  
Orz pada 7:44<sup>41</sup>10  
**Jaietan bazkaldu ede afaltzeko leku aproposa**  
Hirurtasun kalea 3 · MENDARO · Tel. 75 60 45



# SARGOATEKO ERROMERIA

uztailak 25, ostirala

## EG ITASMOA

9:00

Mendi irteera

Madalatik Sargotera oinez

11:30

Meza

12:00

Salda eta txorizoa

12:30

Bertsolariak

German Meabe eta Ziarda  
eta trikitilariak

14:00

Bazkaria

16:00

Haurrentzako  
jolasak

Erromeria

Arantxa eta  
Zabaleta eta

19:

Erromeriaren  
amaiera



## INTERESEKO TELEFONOAK

### OSASUNA

#### Anbulategia:

Larriald iak .....	461111
Txanda hartzeko .	743354
Planning-a .....	742950
Alkoholiko Anonimeak .....	740385
D.Y.A (anbulantzia) .....	464622
G urutze Gorria .....	743864
Mendaroko Ospitalea	756264
Odol Emailak .....	743936

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak .....	740442
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia .....	740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua .....	744366
Udal Kirol Patronatua	744415
Kultura Zerbitzua .....	742158
Mendaroko Udala .....	756100
Ongizate zerbitzua.	741008
Udaletxea .....	741050
Udaltzaingoa .....	741394

### BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra .....	741626
Kiroldegia .....	744415
Kontsumo Bulegoa .	743088
Liburutegia .....	743525
Musika Eskola .....	742145
Mintxeta .....	744315
Parrokia .....	740842
Postetxea .....	741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza	740296
Zaharren Biltokia .	740526

### IKASTETXEA

Haur Eskola .....	74 21 41
Herri Eskola .....	74 08 79
M.H. ....	74 41 32
Herri Institutua	
Arreiturre .....	74 02 67
Ezenarro (Moka) ..	74 44 80
Ikastola .....	74 44 41
L.H.I. ....	74 44 80
Pilar Ikastetxea .....	74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN .....	74 41 12
El Diario Vasco .....	74 40 73
El Correo Espartol ..	74 10 82
Egin .....	10 84 21
Zazpiki Irratia .....	74 34 74

24 BaRREN

A G

## 113 ostirala

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA  
"Twister"  
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

## 1 larunbata

16:00 PLATER TIRAKETA (Finala)  
Arrateko tiro zelaian  
Antolatzailea: La UniOn

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA  
"Volando libre"  
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

## 20 igandea

18:30 DANTZALDIA GELATXOREKIN  
Plaza Handian

22:30 DIAPOSITIBA EMANALDIA  
Josu Merino Patagonian  
Plaza Handian  
Antolatzailea: Morkaiko eta Ongarri Zine Kluba

## 22 asteartea

13:30 "ABIALDIAN"  
MARTXARI  
HARRERA  
San Antolineko errotondan

## 24 osteguna

22:30 NAZIOARTEKO FOLKLORE JAIALDIA  
Kiroldegian  
Antolatzailea: Haritz Dantzari Taldea

## 25 ostirala

9:00 SARGOATERA IRTEERA  
Madalatik

11:30 MEZA SARGOATEN  
Erromeria iluntzera arte.  
Antolatzailea: Morkaiko, Elgoibarko Izarra, DEBEMEN eta Sallobente Elkartea

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA  
"Trainspotting"  
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

A

## 26 larunbata

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA  
"Tormenta blanc a"  
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

## 29 asteartea

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA  
"Eraser"  
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

## 30 asteazkena

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA  
"Dante's Peak"  
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

## 31 osteguna

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA  
"Mission imposible"  
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

ONGARRI zine kluba



Zuzendaria: Jan de Bont  
Antzeleak: Helen Hunt, Bill Paxton, Cary Elwes, Jani Gertz.

### Twister (USA1990)

Emakume batek zuzentzen duen zientifiko talde bat tornadoen fenomenoaz aztertzen ari da. Euren obsesioa tornadoaren bihotzean tresna bat jar-tzea da, tornadoaren ezaugarriak ikertu ahal izateko. Baina egun batean helburu bera duen beste talde bat azaltzen da. Pelikulak tornadoei buruzko irudi ikusgarriak ditu, oso aproposa aire libreko zinerako. Horregatik aukeratu du Ongarri pelikula hau.



## SAN ROKEKO JAIAK

• Abuztuak 15

### SAN ROKE BEZPERA

17:00 Kanpai jotzea, txafliu jaurtiketa eta txupinazo botatzea jaien hasiera iragarri.

19:00 Errosario Santua.

20:30 Bertso afaria Zeberio eta Mailukortarekin. Tartean Maria eta Irune soinu-joleak arituko dira.

\*Abuztuak 16

### SAN ROKE EGUNA

8:00 Txafliuak eta txupinazo janniketa.

11:00 Meza Nagusia.

Segidan Haritz Dantzari Taklearen saioa.

Ondoren gazteen Herri Kirol saioa.

17:00 Umeentzako jokoak, zezentxoak eta poniak.

23:00 Zapotxin taldearekin berbena.

Goizaldeko ordu batean bolo jokoak honako sari hauekin:

-12.000 pta. lehenengoarentzat

-6.000 pta. bigarrenarentzat

-4.000 pta. hirugarrenarentzat.

• Abuztuak 17

### SAN ROKE TXIKI

8:00 Txafliuak eta txupinazoa.

11:00 Meza auzoko hildakoen alde.

Jarraian, mountain-bike lasterketa honako sari hauekin:

-6.000 pta. lehenengoarentzat

-4.000 pta. bigarrenarentzat

-2.000 pta. Ifirugarrenarentzat.

14:00 Anaiarteko bazkaria Gardoki trikinlariarekin.

18:00 Herri Kirolak: Arrospide eta Olsagasti aizkolariak eta Egi eta Atxa harrijasotzaileak.

Jarraian, zezentxoak eta poniak.

22:00 Bolo jokoak eta erromeria Jose Gardokirekin goizaldera arte.

Goizaldeko 2etan errifaren zozketa.

## • Hilaren 22an, "Abialdian" marixa Elgothartik pasatuko da

"Abialdia"rt ekainaren 29an hasi zen Iruñean eta uztailearen 26an arnaltuko da Gernikan. Askatasunaren Ibilaldi hau 1977an egin zen azken aldiz, duela 20 urte. Ibilaldi hura zenbait eskakizun errebindikatzeko egin zuten: amnistia, indar errepresiboek Euskal Herritik alde egitea, Hegoaldeak autonomia lortzea eta euskal nortasunaren ezagutza eta lurralde batasuna eskatzea. Gaur egun eskakizun hauek indarrean jarraitzen dutenez eta Euskal Herriak bizi duen une historikoarekin bat eginez, "Abialdia"n martxa antolatu da. Martxa hau hilaren 22an, asteartea, Elgoibartik pasatuko da. Eguerdiko ordu batean harrera egingo zaio san Antolineko errotondan.

## • Sargoateko erromeria hilaren 25ean izango da

Bigarren urtez Morkaiko Mendizale Elkarteak, Elgoibarko Izarrak, DEBEMEN Elkarteak eta Salobenteko Elkarteak Sargoateko erromeria antolatu dute. Ohi denez, hilaren 25ean, Santiago Egunean ospatuko da Sargoateko erromeria. Goizeko 9etan nahi duten guztiek Sargoatera oinez joateko aukera izango dute. Irteera Madalatik izango da. Goizeko 11:30etan meza ospatuko da eta eguerdian salda eta txorizoa banatuko dira, German Meabe eta Ziarda bertsolarien eta trikitilarien jarduna izango da jarraian. Bazkalostean haurrentzako jolasak antolatu dira. Egunari amaiera aproposa emateko Arantxa eta Ekaitzekin eta Zabaleta eta Txillarre trikitilariarekin erromeria izango da arratsaldeko 7ak arte.



## • Josu Merinoren espedizioaren diapositibak

Igandean, hilak 20, Josu Merinok Patagoniako Cerro Torre mendia igotzeko ataratako diapositiba emanaldia izango da Plaza Handian Ongarri Zine Klubak utzitako pantaila handian. Josu Merinok berak irudien azalpenak emango ditu. Irudien eta komentariaren ezin aproposagoa. Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatutako diapositiba emanaldia gaueko 22:15etan hasiko da.

## FAR MAZIAK

	Egunez	Gauetz
21	Etxeberria	Etxeberria
22	Bidasolo	Zabaleta
23	Bidasolo	Bidasolo
25	Bidasolo	Zabaleta
26	Etxeberria	-----
27	Etxeberria	-----
29	Etxeberria	Anduaga
30	Bidasolo	Zabaleta

(Falta diren egunetako ixandak zehazturik gabe daude. Farmazian bertan galdetu.)

**ANDUAGA:** Mendarozabal, 1

Garagarza. Tel: 75 61 42

**ZABALETA:** Kalebarren, 9

Soraluze. Tel: 75 13 84

## OKINDEGIA

20 igandea: Zabaleta

25 ostirala Idarraga

27 igandea: Doña Merbettes

31 osteguna: Eizagirre

III • ■ 111 11

## Volando Hibre (USA 1996)

Amy-k ama hil berri du eta Zelanda Berrian bizitza berri bati ekin beharko dio apenas ezagutzen duen aitarekin. Egun tristen ondoren alaitasuna ezartutuko du ahatekume batzuk zaintzen hasiko baita. Ingurugiro-zaindaria baten ezin dituela ahateak hazi esaten dio hegoak moztu ezean. Neskatoak ez du hegoak moztetik nahi, hortaz alde egiten utzi beharko die. Baina kontua da ahateek ez dakitela hegan egiten.



Zuzendaria: Carrol Ballard  
Antzeleak: Jeff Daniels, Anna Paquin, Dana Delany, Terry Kinney.

ON  
Ce  
zin

114-1

• • • • • EI • ■ • • • • III 1111 Z E M • 111 • 111 111

## Salerosketak

### \*SALDU\*

• 1,5 metroko ohea egiten den sofa saltzen dut. a 74 25 15

♦ Kitarra elektrikoa eta anplia salgai prezio onean. 100 watioko Marshall Valvestatea da. Egoera onean. rr 74 19 26 (Asier)

• MIDI furgoneta berria salgai. Kanpinerako aproposa. Bizikletak eramatekoa dattka. Toldoa aukeran. **74 27 48 (Arratsalde)**

\*Kanpin handia, familiarra salgai. rr 74 27 48 (7etatik aurrera)

• GAME BOY-rako Master Karateka eta lbrtris salgai. Prezio interresgarria, ir 74 39 39

• Merkatu plazan liburutegi-kioskoa traspasatzen dut. tr 74 25 17 (Amaia)

• Aukera interesgarria: Benecci Superligera eskopeta saltzen da. Oso ondo zainduta dago. Bi urteko garantia eta estrak. rr 74 03 92 (Dani)

• Peugeot **SRD salgai**. Merkea. Honda 500 **VFR** motorra (berria). rr 907 84 **40 54 (Unai)**

• Poliesterrezko Yamaha itsasuntzia salgai. 4 zaldiko motorra. 4,50ko luzera eta 1,50ko manga. zr 19 13 07

## Etubizitzak

• Etxe eguzkitsua salgai Sigman, altzariak eta guzti. tr 74 20 78.

• Pisua edo buhardila bat alokatuko nuke. Ez zait inporta herritik urrun badago. tr 74 43 10 Cristobal.

\*Elgoibarren pisua edo gela bat alokatu nahi dut. tr 74 40 40 (M. Eugenia)

• Maiatzetik irailera bitartean etxea alokatzen dut Jakan. 74 15 22

• Alcoceber-en apartamentua alokatzen da uztaile eta irailean. tr 74 22 08

• Torreviejan apartamentua alokatzen dut. Abuztuaren lehen 15 egunak eta iraila. ze 74 24 50

\*Bungalow-a alokatzen dut Santa Polan udan, uztailean izan ezik, tr 74 12 13 (Carmen, gauez)

• Jakan apartamentua alokatzen da. (Membrilleras-en) tr 74 20 31

• Benidorm-en apartamentua alogeran. Hondartzako lehen ilaran. tr 74 20 31

• Pisua salgai Pedro Mug,uruzan. rr 74 04 56 (Maria)

## Bestelakoak

• Abuztuaren etxe edo baserri batean eukera praktikatu nahi dut. tr 75 61 90 (Ziortza)

\*Perilito urdin bat galdu zen hila-ren 16an San Frantzisko kalean. Norbaitek topatu badu, dei dezala. **u 74 39 39**

• Austriako familia batek Salzburgorako au-pair bat behar du. Urtebeterako, abuztuaren 15etik aurrera. Erretratua eta aurkezpen eskutitza bidali honako helbidera: **"Fran Litka, Weidenstrasse 3A, Birkensiedlung, 5020 Salzburg (Austria)**

• Bi mutil hartuko nituzke apopilo. Erroper garbiketa barne. is 74 09 44

## Partikularrak

• Ingeleseko partikularrak ematen ditut. a **74 15 82 (Eduard<sup>o</sup>)**

• Fisika eta matematika klase partikularrak ematen ditut. rr 74 **13 34 (Andoni)**

• Frantses klaseak ematen ditut. Ikastaro trinkoa uztailean. ar 74 04 59

• LOGSE batxilergoko marrazketa eta arkitektura eta injinerutza hasteko oinarriko marrazketa emango ditut uztailean. a **74 03 74**

• Euskarazko eta Lehen Hezkuntzako partikularrak ematen dira. Talde txikiak. a **74 09 72 (Garikoitz)**

## Lana

### \*ESKAERM

• Etxea garbitzeko emakume bat eskaintzen da. ser 74 21 88

• 26 urteko neska tabernan lan egingo luke. Esperientziarekin. iz **75 20 69 (Kristina)**

• Neska etxeko lanak egin eta umeak zainduko litzuke. tr 909 41 73 52

• Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Esperientziaduna eta cuskararekin. sr **19 21 28 (Asun, asteburuetan)**

• Neska eskaintzen da umeak zaindu edo hestelako lanak egiteko. tr **74 18 68**

### \*ESKAINZM

• Tabernan lan eieko neska behar da. Hohe esperientziarekin. ser 74 26 32 42 30

## Garajeak

• Bi garaje alokatzen ditut Santa Ana kalean. tr 74 05 49 / 74 09 09

• **Trenbide** kalean garajea salgai. Oso handia da, errulota edo bi kotxe **sartzeko** beste. Sobrepisoa dauka. tr 74 01 33

• Urasandin garaje itxia saltzen da. rr 74 08 63

• Garaje itxia salgai Arregitorren. tr 75 51 77

• Urasandin garajea dut alokatze-ko. Mairaduna. te 74 31 07

## Agurrak

• Zorionak **Ander Polori** gaur, uztailek 18, 9 urte bete dituelako. Aitxixa eta amamaren, gurasoen eta Loinaz arrebaren partez.

• **Juan eta Maiteri**: zuen ezkontza dela eta zorionak eta urte askotan zoriontsu izan zaitezela opa dizuegu Juaristi-Zabala sendiak.



• Zorionak **Aintzaneri** hilaren 2 leian 4 urte bete dituelako. Guraso eta ahizpa Leireren partez.

• Zorionak **Ihigo Irزابالbeitiari** gaur, ostirala, 12 urte bete dituelako. Bere familiarren partez.



♦ Zorionak Lourdes uztailearen 10ean urteak bete zituelako Monica Silvaren partez.



• Zorionak Nerearentzat eta mila musu Ainhoa eta Garaziren partez.

## Agurrak



• Zorionak **Leire Arruabarrenari** hilaren 23an urteak beteko dituelako. Guraso, anaia Andoni eta Aitor eta amamaren partez. Ondo pasa.



• Zorionak hilaren 14an 11 urte bete zituzten **Ainhoa eta Nereari**. Familia osoaren, Amaiaren eta osaben partez.

• Zorionak **Ana Iruretarri** hilaren 26an urteak beteko dituelako, Sergioren partez.



• Zorionak **Dorleta Fernandezi** abuztuaren 10ean 6 urte bete dituelako. Aitaxo, ammo eta Ikerren partez.



• Zorionak **Edu Ibarzabali** uztailearen 24an 5 urte beteko dituelako Miren, Isabel eta Jose Luisen partez.



• Zorionak uztailearen 17an 6 urte bete zituen **Miren Ibarzabali** Edu, Isahel eta Jose Luisen partez.



• Aupa Eli! Behar den bezala ospatuko dugu hihar zure urte-hetzea. Zorionak.



• Zorionak **Erika Lehri** hilaren 2 leian 13 urte beteko dituelako. gurasoen eta familiarren partez.





# AGUATZANE

## ileapaindegia

Abuztuan zabal ik

(4 - 5 6 izan ezik)




- Rstelehenetik lorunbotera 8:30etatik 14:00etara
- Ostiral arrotsoldeon zabolik
- Rurrez deituz gero orduz kanpo ere hartuko zoitugu
- Gizonezko, emokumezko eta hourrentzoko orrozkerok
- \*Ezkongalenzako orrazkerak eto makilaia noloriuma

Scin Bortolome, 4 atzeoldea  
(Leku-Ederren)  
Tel: 74 18 64

## LEKII-EDER ETXEBIZITZAK

LOKAL KOMERTZIALAK eta GARAJEAK **cf74/01/**



- Etxebizitza bakarra, ganbararekin
- Etxe osoak kanpora ematen du, eguzkitsua
- Material bikainekin amaitua
- Gasezko berogailua eta ur bero indibiduala
- Ordainketa-era hitzegitekotan

*EZ GALDU A 10/11 Mall*

**RAUPSI ~ IPI**

Informazioa eta salmenta 20 83 le

# COUPE



## Hyundai COUPE

1.6i 16V 115cv  
2.470.000 pta.

2.0i 16V 138cv  
2.770.000 pta.

45<sup>1</sup>

**YUTIDRI**

**MENDARO AUTOAK**

**DONOSTIA ELG OIBAR EIBAR**

Zumalakarregi, 1

Olaso, 27

Otaola, 27

Tel: 31 22 00

Tel: 74 32 00

Tel: 70 13 82

**GIPUZKOARAKO BANATZAILE OFIZIALAK**